

Berrizkuntza lideratzeko apustua

EAEEn abian jarri den Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Europan balio ekonomiko eta soziala sortzen lidergoa lortzeko apustu irmoa da. Epe luzean, 2030ean, I+G jardunak BPGaren %5era iristea du xede eta, horretarako, 85.000 milioi euro inbertitzea aurreikusten dute.

DANIEL UDALAITZ

AZKEN ALDIAN komunikabideek Innobasqueren hainbat daturen eta proiekturen berri eman dute, eta planak gauzatu ahal izateko aurreikusi dituzten inbertsio zenbaki ikaragarriak jakinarazi dituzte. Pedro Luis Maria Uriarte, Carlos Garaikoetxearekin Eusko Jaurlaritzako sailburu izandakoa eta BBVAko presidenteorde ohia da Innobasqueko presidentea, eta Txema Villate zuzendaria.

Zer da?

Innobasque EAEko hiru lurralde historikoen, hau da, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan dagoen Berrikuntzaren Euskal Agentzia da. Balio ekonomikoa eta soziala sortzeko berrikuntza teknologikoan EAE Europako erreferente bihurtzea du xede. Helburu horiek 2030 arte betetzeko, 85.000 milioi euro inguru inbertitzea aurreikusten du. 2007an jarri zen abian, Saretek –ordurako 92 kide zituen zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren euskal sarea–, Ezagutzaren Clusterra eta Eurobulegoak –enpresen kudeaketa eta internazionalizazioa hobetzeko proiektuetan lanean ari zena– txertatu zituenean. Ez da erakunde publikoa, instituzioekin elkarlanean eta horien babesaz lan egiten duen erakunde pribatua baizik. Bertan eragile sozial, ekonomiko, enpresarial, sindikal, unibertsitario eta kultural guztiak daude ordezkaturak. Proiektu hau alderdien ar-

teko borroka kutsa ez dezan eta guztiek, ideologia politikoek eragindako bereizketarik gabe, parteka dezaten, euskal alderdi politikoek ordezkari ez izatea bilatu dute, nahita.

Innobasqueko Batzordea 40 pertsonen osatzen dute, eta horien artean ahaldun nagusiak, unibertsita-

teetako errektoreak, EAEko teknologia zentroetako zuzendariak, Eusko Jaurlaritzako sailburuak eta enpresa handietako zuzendaritzako kideak daude. Innobasqueren organigraman, ordezkaritza berdintasunez banatzen da eskaintza teknologikoaren (ikerlariak), eskaeraren (enpresak) eta errazle delakoen (administrazioa) artean.

2030ean, berrikuntza teknologikoan aitzindari

Innobasque agentziako arduradunek asmo handiko xedea dute esku artean, abiapuntua kontuan hartuz gero. Hala, egun, Europako 268 eskualdeetan EAE 55.a da berrikuntza teknologikoari dagokionez, hau da, ikerketa eta garapenaren bidez (I+G) balio ekonomikoa eta soziala sortzeko dagokionez. Suedia lehen postuan da Europako herrialdeen artean, bere Barne Produktu Gordinaren (BPG) %3,5 I+G-ri baitagokio, eta eskualdeen sailkapenaren buruan Stockholm dago, BPGaren %4,3ari esker. Bada, Innobasqueren xedea 2030ean liderrari gailentzea da, alegia, egungo %1,6tik abiatu eta %5era iristea.

Helburua lortzeko, euskal agentzia berriak bostaldi ezarri ditu. 2010erako Lankidetzarako eta Garapen Ekonomikorako Erakundearen (LGEE) batez bestekora iritsi nahi dute, hau da, BPGaren %2,25era; 2015ean Lisboako Gailurrean proposatutako

innobasque

Pedro Luis Maria Uriarte: "Berritzea, krisiari erantzuteko ezinbestekoa da"

Innobasqueko presidente Pedro Luis Uriartek argi dauka. Berritzea ezinbestekoa da krisiari erantzuteko. BBVAko kontseilari ohiak euskal ekonomiak behera egingo duela baina espainiar ekonomiaren gainetik egoten jarraituko duela uste du, eta zera adierazi du berriki: "Egungo krisialdi globala sakoneko korranteetatik bereizi behar da, eta ezinbestean eman behar diren erantzunak hautatu behar dira. Erantzun koiunturala eman behar zaio gogorra izango den krisialdiari eta erantzun estrategikoa behar da, krisialditik ateratzeko goranzko zikloa hasten denean, egoera bereziki positiboan kokatuta egon ahal izateko".

Uriarteren arabera, "gure helburua teknologiaren bigarren mundutik lehen mundura pasatzea da". Gogoan du krisialdia globala dela eta, hortaz, "gure ekonomia eta herrialde garatuena dagoeneko merkatu globaleko protagonista berriek baztertzeko eta ordezkatzeko arriskuan dagoela". Izan ere, NMFren (Nazioarteko Moneta Funtza) urriko txostenaren arabera, Txina %9 haziko da 2009an, India %6, Errusia %5,6 eta Brasil %3,5. Horrek guztiak eragina izango du munduko botere banaketan eta ondorio ekonomikoak, finantzarioak eta geostrategikoak izango ditu. Testuinguru horretan, Uriartek garbi dauka euskal ekonomiak duen arriskua. Hala, hauxe dio presidenteak: euskal ekonomian, BPGren %24ari fenomeno globalizatzaileak zuzenean eragiten dio, eta beste %24ri zeharka eragiten dio, ia erdiari, beraz. Azkenean, ia industria sektore guztiak baztertuak eta ordezkatuak izateko arriskua dute.

Horregatik guztiagatik, Innobasqueko presidentearen arabera, kalitatea eta produktibitatea hobetzea, egiten duguna hobeto egitea, orain arte landu gabeko



Pedro Luis Maria Uriarte, Innobasqueko lehendakaria, azalpenak ematen Berrikuntza Urtearen kariatara.

esparruetan sartzea eta erronka sozialei aurre egitea da apustua. "Jende gehiagok lan egitea lortu behar da", dio, "era guztietako azpiegiturretan inbertitu behar da, eta kalitatearen nahiz eraginkortasunaren aldeko apustua egiten jarraitu behar da, internazionalizazioa bultzatuz eta enpresei dimentsio handiagoa emanez". Zientzia eta hezkuntza ere gogoan ditu. Zentzu horretan, hainbat ekimen sustatzen ditu, hala nola Donostia International Physics Center edo Bizkaian koka litekeen espalazio bidezko neutroien iturria (hori lortzeko ahaleginek emaitza lortzen badute). Hezkuntzari dagokionez, alor horretan gogor inbertitu behar dela dio, "sortu behar dugun eta hirueleduna behar lukeen gizarte multietniko eta kulturantzunak" funtziona dezan. Eta generoen arteko muturreko berdintasuna lortu behar dela gaineratu du.

%3ra iristea da helburua; 2020an egun Suediak duen mailara iritsiko litzateke, %4,3ra, alegia; eta, azkenik, 2030ean, %5era iristea lortuko litzateke. Hori guztia gauzatzeko, Espainiako Estatuak ikerketa zientifikoaren eta teknikoaren eskumena transferitutako duela espero du Innobasquek, Gernikako Estatuak aurreikusitako arren, oraindik ez baitute egin. Ikusteko dago, azkenean, EAJk Espainiako Estatuak Aurrekontu Orokorra babestu ondoren, agindutako transferentzia gauzatu ote den.

Mobilizazio soziala

Jomugara iristeko, Innobasque egundoko mobilizazio soziala egiten ari da EAEn. 2009a amaitzerako, hainbat esperientzia esparruko 1.000 lider inguru txertatu nahi ditu (dagoeneko

Proiektu hau alderdien arteko borrokak kutsa ez dezan eta guztiek parteka dezaten, euskal alderdi politikoek ordezkariarik ez izatea bilatu dute, nahita

800 inguru lortu ditu); hainbat alor ekonomiko, sozial, kultural, unibertsitario, zientifiko eta teknologikoko 1.500 bazkide bildu nahi ditu, eta horietatik erdia enpresak izatea espero du; 151 entitate pribatu nahiz publikorekin akordioak sinatzeko asmoa du, merkataritza ganberetatik hasi eta udaletaraino edo patronaletaraino. Azkenik, data horretarako, 5.000 pertsona berritzailek osatutako komunitatea ere sortu nahi dute, nazioarteko taldeek lagundutako hainbat programa garatu nahi dituzte eta gizarte sentsibilizatzeko kanpaina burutzeko asmoa dute. ■